



45 urtetik gorakoen kontratazioa eta tresna digitalen ezarpena, Alkateordetzak eta Donostiako Merkatarien Elkarteak sinatutako hitzarmenaren ardatzak

Lehen aldiz, kontratu finkoak izan daitezke, eta kontratatzaileak 7.500 eurorainoko diru-laguntza jaso ahal izango du

Alkateordetzak, Donostiako Sustapenaren bitartez, hitzarmen berria sinatu du Donostia-San Sebastian Shops plataforma eratzen duten hiriko merkatarien elkarte guztiekin. Plataformaren xede nagusietako bat 45 urtetik gorako pertsonak kontratatzea eta hiriko saltokietan negozio-aukera berriak sortzen laguntzeko tresna digitalak ezartzea da.

Ernesto Gasco alkateordeak honela esan du: “Hitzarmen honen bidez merkataritza dinamizatzeko estrategia bakarra adostu eta definitu dugu, eremu publikoan zein pribatuan. Merkataritzaren lehiakortasuna gure lehentasunetako bat da, eta, horregatik, hainbat programa aktibatu ditugu. Programa horietako bat da Dendaticsm,



hiriko merkataritza-ehundura digitalizatzearen bidez bezeroei beste hiriburuen eskaintzatik bereizten laguntzeko esperientzia berdingabeak eskaintzea bilatzen duena. Programa horrekin batera, sektorean 45 urtetik gorako taldea sartu nahi dugu, prestakuntza eta esperientzia profesionala daukatelako”.

Aldateordeak, Donostiako Udal Sozietatearen bitartez, eta Dendass, Merkataritza Federazioa, Auzoa, Zaharrean, Centro Erdi eta Bretxako Merkatua merkatarien elkarteek sinatutako hitzarmen honek Merkataritzaren 2018 Ekintza Plana sustatzeko eta garatzeko lankidetzaz ezartzen du, xede hauekin: hiriko egitura ekonomikoa indartzea eta egonkortzea, merkataritza eta enplegua egonkortzea, kontsumitzaile berriak erakartzea eta tokiko merkataritzan kontsumoa sustatzea.

Hitzarmen honetarako esleituko den zuzkidura ekonomikoa 205.000 eurokoa da. Zenbateko horri merkataritzaren sektorerako beste partida ekonomiko batzuk gehitu behar zaizkio, esaterako 45 urtetik gorakoak kontratatzeko (250.000 euro) edo irtenbide teknologikoak ezartzeko partida (110.000 euro).

Sinatutako hitzarmenak planteatzen duen lan-eredua ardatz hauetan oinarritzen da:

1.- Barne-kohesioa: hiriko proiektuei ekiteko merkataritza-ehundura sendo baten asoziazionismoa mantentzen eta sustatzen da.

2.- Marketin on line. Plataformak aurrera eramane behar dituen jardueretan kolaboratzea, gai hauei lotuta: merkataritza suspertzea, merkataritza-ikerketak, merkataritza-dinamizazioa, etab.

3.- Lehiakortasuna eta ekintzazailtza: atal honetarako **250.000 euroko partida zehatza jaso da, 45 urtetik gorako pertsonak kontratatzeko**. Hiru hilabetetik sei hilabetera arteko behin-behineko kontratuen kasuan, 6.000 eurorainoko hobaria emango da kontratazio bakoitzeko. Kontratu finkoen kasuan, zenbateko hori 7.500 euroraino igoko da. Bi kasuetan, behin-behineko kontratuen zein kontratu finkoen kasuan zenbatekoak % 10 areagotzen dira gizonen kasuan, 55 urtetik gorakoak eta luzaroko langabeak direnean; eta % 15 emakumeen kasuan, 55 urtetik gorakoak eta luzaroko langabeak, seme-alaba adingabeak beren kargura dituzten gurasobakarrak, desgaituak edo genero-indarkeriaren biktimak direnean.

4.- Talentua, berrikuntza eta teknologia. Atal honetarako **110.000 euroko partida zehatza jaso da ere**, beren lehiakortasuna IKTen bidez hobetu dezaketen **saltokien eraldatze teknologikoko prozesuei laguntzeko**. 3.000 eurorainoko tresna digital berrien ezarpena sustatzea du helburu, negozio-aukera berriak sortzen laguntzeko, esaterako: e-commerce, online denda, errealitate areagotua, erakusleihu birtualak, marketin digitala, ekipo informatikoak, web-orriak, etab.

Donostiako Sustapenak hitzarmena betetzen dela ziurtatuko du, eta hitzematen du elkarteek eskatutako ekimenen kudeaketa, informazioa eta lankidetzaz errazteko beharrezkoak diren kooperaziorako mekanismo publiko-pribatuak indartuko dituela, tokiko merkaturaren kontsumoa sustatu eta sektorearen lehiakortasuna hobetze aldera.



Hiri berritzailea
Ciudad innovadora

fomentosansebastian.eus

Elkarteek, bestalde, hitzematzen dute sektorea sustatuko dutela, eta, horretarako, ezarritako ardatzak garatu eta egikaritzeko dituztela eta tokiko merkataritzarako edozein neurri sustatzeko, zabaltzeko eta komunikatzeko foroetan, organoetan eta jardueretan parte hartuko dutela. Hitzarmenak urtebeteko iraupena du, 2019ko urtarrilaren 1etik atzeraeraginezko efektuarekin, eta lau hilabetez luzatu ahal izango da.



Hiri berriailea
Ciudad innovadora

fomentosanbastian.eus